XEDAPEN OROKORRAK

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA
EKONOMIA ETA OGASUN SAILA
BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

1886

42/2024 DEKRETUA, apirilaren 16koa, zeinaren bidez onartzen baita Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko Transferentzien Batzorde Mistoak hartutako erabakia, irailaren 26ko 2768/1980 Errege Dekretuaren bidez zerbitzuen eta gizarte-laguntzaren arloan (nazioarteko babessistemaren autonomia-fasea) Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatutako eginkizunak eta zerbitzuak gehitzeari buruzkoa.

Irailaren 26ko 2339/1980 Errege Dekretuaren bidez onartutako Transferentzien Batzorde Mistoaren erabakiaren 2. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta bertan eskatutako formalizazioizapideak betetze aldera, dekretu honen xedea da Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko Transferentzien Batzorde Mistoaren Osoko Bilkuraren 2024ko martxoaren 11ko Erabakia, irailaren 26ko 2768/1980 Errege Dekretuaren bidez Euskal zerbitzuen eta gizartelaguntzaren arloan (nazioarteko babes-sistemaren autonomia-fasea) Autonomia Erkidegoari eskualdatutako eginkizunak eta zerbitzuak gehitzeari buruzkoa, onartzea.

Horren ondorioz, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuak, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuak eta Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuak proposatuta, eta Gobernu Kontseiluak 2024ko apirilaren 16an egindako bilkuran gaia aztertu eta onartu ondoren, hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua. Onartzea Estatuaren eta Autonomia Erkidegoaren arteko Transferentzien Batzorde Mistoaren 2024ko martxoaren 11ko Erabakia, irailaren 26ko 2768/1980 Errege Dekretuaren bidez Euskal zerbitzuen eta gizarte-laguntzaren arloan (nazioarteko babes-sistemaren autonomia-fasea) Autonomia Erkidegoari eskualdatutako eginkizunak eta zerbitzuak gehitzeari buruzkoa, apirilaren 9ko 367/2024 Errege Dekretuan ezarritako baldintzetan, eta Errege Dekretu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian osorik, dekretu honen eranskin gisa, argitaratzeko agintzea,.

2. artikulua.– Eskualdatutako egitekoak eta zerbitzuak Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailari atxikita egongo dira aurrerantzean.

AZKEN XEDAPENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean bertan jarriko da indarrean dekretu hau.

Vitoria-Gasteizen, 2024ko apirilaren 16an.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua,
OLATZ GARAMENDI LANDA.

Ekonomia eta Ogasuneko sailburua,
PEDRO MARÍA AZPIAZU URIARTE.

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburua,
NEREA MELGOSA VEGA.

ERANSKINA, APIRILAREN 16KO 42/2024 DEKRETUARENA

367/2024 ERREGE DEKRETUA, APIRILAREN 9KOA, IRAILAREN 26KO 2768/1980 ERREGE DEKRETUAK OSASUNAREN, ZERBITZUEN ETA GIZARTE-LAGUNTZAREN ARLOAN EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOARI ESKUALDATUTAKO ESTATUKO ZERBITZUAK GEHITZEARI BURUZKOA (NAZIOARTEKO BABES-SISTEMAREN AUTONOMIA-FASEA)

Konstituzioaren 149.1.2 artikuluak ezartzen du Estatuak eskumen esklusiboa duela atzerritartasunaren eta asilo-eskubidearen arloan. Gainera, 149.1.1 artikuluak Estatuari esleitzen dio, halaber, oinarrizko baldintza batzuk ezartzea, konstituzio-eskubideak baliatzean eta konstituzio-eginbeharrak betetzean tratu-berdintasuna bermatzeko.

Asilo-eskubidea eta babes subsidiarioa arautzen dituen urriaren 30eko 12/2009 Legeak xedatzen du Europar Batasunekoak ez diren herrialdeetako nazionalek eta aberrigabeek nazioarteko babesa –errefuxiatu-estatutuak eta babes subsidiarioak osatua– izan dezaketela Espainian, eta nazioarteko babes horren edukia ere ezartzen du.

Era berean, nazioarteko babesa emateko harrera-sistema arautzen duen erregelamenduak, zeina martxoaren 29ko 220/2022 Errege Dekretuaren bidez onartu baitzen, nazioarteko, aldi baterako eta aberrigabeentzako babesa eskatzen eta jasotzen duten pertsonen integrazio-ibilbidearen araubide juridikoa garatzen du. Nazioarteko, aldi baterako edo aberrigabeentzako babesaren onuradun diren pertsonen kasuan, ibilbide hori autonomia-fasean amaitzen da. Fase horren helburua da independentzia eskuratzea eta erabateko gizarteratzea ahalbidetzen duten ezagutzak eta trebetasunak finkatzen laguntzea.

Bestalde, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuak, abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren bitartez onartuak, 10.12 artikuluan Euskadiri ematen dio gizarte-laguntzaren arloko eskumen esklusiboa.

Irailaren 26ko 2768/1980 Errege Dekretuaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatu zitzaizkion Estatuaren osasunaren, zerbitzuen eta gizarte-laguntzaren arloko zerbitzuak.

Azkenik, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren bigarren xedapen iragankorrak eta irailaren 26ko 2339/1980 Errege Dekretuak zehatz ezartzen dute zein eratan eta zer prozeduraren bidez eskualdatu behar zaizkion Euskal Autonomia Erkidegoari Estatuko Administrazioaren zerbitzuak.

Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren bigarren xedapen iragankorrean aipatzen den Batzorde Mistoak, 2024ko martxoaren 11ko bileran, irailaren 26ko 2768/1980 Errege Dekretuaren bitartez osasunaren, zerbitzuen eta gizarte-laguntzaren arloan Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatutako estatuko zerbitzuak gehitzeari buruzko erabakia hartu zuen (nazioarteko babes-sistemaren autonomia-fasea). Erabaki hori Gobernuari bidali zaio, errege-dekretu bidez onartzeko.

Ondorioz, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren bigarren xedapen iragankorrean xedatzen dena betez, Lurralde Politikako eta Memoria Demokratikoko ministroak proposatuta, eta ministroen kontseiluaren 2024ko apirilaren 9ko bileran aztertuta, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.- Batzorde Mistoaren erabakia onartzea.

Onartu egiten da Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren bigarren xedapen iragankorrean aurreikusitako Batzorde Mistoak 2014ko martxoaren 11ko bilkuran hartutako erabakia, irailaren

26ko 2768/1980 Errege Dekretuaren bitartez osasunaren, zerbitzuen eta gizarte-laguntzaren arloan Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatutako estatuko zerbitzuak gehitzeari buruzkoa (nazioarteko babes-sistemaren autonomia-fasea). Erabaki hori errege-dekretu honen eranskinean jaso da.

2. artikulua.- Eskualdatutako zerbitzuak gehitzea.

Ondorioz, gehitu egiten dira irailaren 26ko 2768/1980 Errege Dekretuaren bitartez osasunaren, zerbitzuen eta gizarte-laguntzaren arloan Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatutako estatuko zerbitzuak (nazioarteko babes-sistemaren autonomia-fasea), Batzorde Mistoaren erabakian ageri den bezala eta bertan zehaztutako termino eta baldintzen arabera.

3. artikulua.- Eskualdatutako zerbitzuen gehikuntzaren eraginkortasuna.

Batzorde Mistoaren erabakian adierazitako egunetik aurrera izango du eragina eskualdatutako zerbitzuen gehikuntzak.

AZKEN XEDAPENA.– Indarrean jartzea.

Errege-dekretu hau aldi berean argitaratuko da Estatuko Aldizkari Ofizialean eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, eta argitaratzen den egunean jarriko da indarrean.

ERANSKINA, APIRILAREN 9KO 367/2024 ERREGE-DEKRETUARENA

Jorge García Carreño eta Ugaitz Zabala Gómez jaunek, Euskal Herriko Autonomia Estatutuko bigarren xedapen iragankorrean aurreikusitako Batzorde Mistoko idazkariak diren aldetik, honako hau

ZIURTATZEN DUTE:

Transferentzien Batzorde Mistoaren 2024ko martxoaren 11ko Osoko Bilkuran, irailaren 26ko 2768/1980 Errege Dekretuaren bidez Osasunaren, Zerbitzuen eta Gizarte Laguntzaren arloan Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatutako Estatuko zerbitzuak gehitzeko erabakia hartu zen (nazioarteko babes-sistemaren autonomia-fasea), ondoren adierazten diren baldintzekin:

A) Gehikuntza babesten duten konstituzio-, estatutu- eta lege-arauak.

Konstituzioaren 149.1.2 artikuluak ezartzen du Estatuak eskumen esklusiboa duela atzerritartasunaren eta asilo-eskubidearen arloan. Gainera, 149.1.1 artikuluak Estatuari esleitzen dio, halaber, oinarrizko baldintza batzuk ezartzea, konstituzio-eskubideak baliatzean eta konstituzio-eginbeharrak betetzean tratu-berdintasuna bermatzeko.

Asilo-eskubidea eta babes subsidiarioa arautzen dituen urriaren 30eko 12/2009 Legeak xedatzen du Europar Batasunekoak ez diren herrialdeetako nazionalek eta aberrigabeek nazioarteko babesa –errefuxiatu-estatutuak eta babes subsidiarioak osatua– izan dezaketela Espainian, eta nazioarteko babes horren edukia ere ezartzen du.

Era berean, nazioarteko babesa emateko harrera-sistema arautzen duen erregelamenduak (aurrerantzean, Erregelamendua), zeina martxoaren 29ko 220/2022 Errege Dekretuaren bidez onartu baitzen, nazioarteko, aldi baterako eta aberrigabeentzako babesa eskatzen eta jasotzen duten pertsonen integrazio-ibilbidearen araubide juridikoa garatzen du. Nazioarteko, aldi baterako edo aberrigabeentzako babesaren onuradun diren pertsonen kasuan, ibilbide hori autonomia-fasean amaitzen da. Fase horren helburua da independentzia eskuratzea eta erabateko gizarteratzea ahalbidetzen duten ezagutzak eta trebetasunak finkatzen laguntzea.

Bestalde, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuak, abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren bitartez onartuak, 10.12 artikuluan Euskadiri ematen dio gizarte-laguntzaren arloko eskumen esklusiboa.

Irailaren 26ko 2768/1980 Errege Dekretuaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatu zitzaizkion Estatuaren osasunaren, zerbitzuen eta gizarte-laguntzaren arloko zerbitzuak.

Azkenik, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren bigarren xedapen iragankorrak eta irailaren 26ko 2339/1980 Errege Dekretuak Transferentzien Batzorde Mistoaren funtzioak eta jarduteko prozedura ezartzen dituzte, eta horien arabera hartu da erabaki hau.

Arau-aurreikuspen horien oinarrien gainean formalizatu behar da irailaren 26ko 2768/1980 Errege Dekretuaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoari Osasunaren, Zerbitzuen eta Gizarte Laguntzaren arloan eskualdatutako Estatuaren zerbitzuak gehitzeko erabakia (nazioarteko babes-sistemaren autonomia-fasea).

B) Euskal Autonomia Erkidegoak bere gain hartzen dituen eginkizunak.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoak jarraian aipatzen diren eginkizunak hartuko ditu bere gain gizarte-laguntzaren esparruan nazioarteko, aldi baterako edo aberrigabeentzako babesaren onuradun diren pertsonentzako gizarte-laguntzaren arloan, baldin eta Euskal Autonomia

Erkidegoaren lurraldean nazioarteko babesaren harrera-sistemaren baliabideak jasotzen ari badira nazioarteko, aldi baterako edo aberrigabeentzako babesa ematen dien ebazpena jakinarazten zaien unean, autonomia-fasea hasten denetik aurrera; honako hauek, hain zuzen ere:

1. Erregelamenduaren 22. artikuluan aurreikusitako jarduketa, prestazio edo zerbitzu hauek gauzatzea, gutxienez, beharrezkoak diren jarraipen-, kontrol- eta egiaztapen-lanez gainera:

a) Autonomia babestea, oinarrizko premiak asetzeko laguntza ekonomikoak emanez. Pertsona bakoitzaren premien arabera eman eta ordainduko dira laguntza horiek.

b) Laguntza soziala, psikologikoa, juridikoa eta kulturala ematea.

c) Hizkuntzaren irakaskuntza eta alfabetatze- eta irakurketa-jarduerak eskaintzea, behar izanez gero.

d) Aholkularitza soziolaborala eta prestakuntza-programetan sartzeko laguntza ematea.

e) Itzulpen- eta interpretazio-zerbitzuak eskuratzea.

f) Hartzaileak garatu behar dituen jarduerak bizitza pertsonalarekin eta familia-bizitzarekin uztartzen laguntzea.

g) Bere gain hartutako eginkizunak garatzeko beharrezkoak diren jarduketak bideratzea eta gauzatzea, C) 4 apartatuan aurreikusitakoari kalterik egin gabe, Erregelamenduaren 6. artikuluan jasotako harrerako printzipio orokorrak betetzen direla bermatuz.

2. Erabateko gizarteratzea ziurtatzeko beharrezkoak diren beste jarduketa guztiak egitea.

2.– Eginkizun horiek betetzean, autonomia-faseko prestazioen oinarrizko baldintzak errespetatuko dira, bai eta autonomia-faseko jardueren, prestazioen edo zerbitzuen jarraipenari buruzko oinarrizko irizpideak, estandarrak eta adierazleak ere, eta Euskal Autonomia Erkidegoan ez dira aplikagarriak izango Estatuko Administrazio Orokorrak ekintza itunduaren bidezko nazioarteko babes-sistemaren kudeaketa-araubideari buruz emandako arauak.

3.– Aurreko apartatuetan autonomia-faseari dagokionez adierazitakoa aplikatuko zaie, halaber, Euskal Autonomia Erkidegoak harrera egiteko bere ardurapean hartzen dituen pertsona birlekutuei, indarrean dagoen babes komunitarioko hitzarmenaren Jarraipen Batzordean erabakitzen diren kopuruaren eta kasuen arabera.

C) Estatuaren Administrazio Orokorrak beretzat gordetako eginkizunak.

Estatuko Administrazio Orokorrak eginkizun hauek betetzen jarraituko du:

1. Asilo-eskubideak eta babes subsidiarioak osaturiko nazioarteko babesari buruzko legegintza eta erregelamendu-ahala egikaritzea, bai eta nazioarteko babes horren edukiari buruzkoa ere, Europar Batasunekoak ez diren herrialdeetako nazionalitatea duten pertsonei eta aberrigabeei dagokienez.

2. Nazioarteko, aldi baterako edo aberrigabeentzako babes-eskaerak izapidetzea, horien eskaera, instrukzioa, balorazioa, ebazpena eta jakinarazpena barne.

3. Nazioarteko, aldi baterako edo aberrigabeentzako babesa eskatzen duten pertsonei buruzko araugintza-ahala eta harrera gauzatzea.

4. Autonomia-faseko prestazioen oinarrizko betekizunak, jarduketen jarraipenerako estandarrak, irizpideak eta oinarrizko adierazleak zehaztea, Erregelamenduaren 6. artikuluan jasotako harreraprintzipio orokorrak betetzen direla bermatzeko, harrera-sistemaren baldintzen harmonizazioa sustatu eta gainbegiratzeko printzipioa bereziki, hartzaileei tratu-berdintasuna bermatuz.

5. B) apartatuan aipatzen diren nazioarteko, aldi baterako eta aberrigabeentzako babesaren onuradunak autonomia-erkidegoko zerbitzu eskudunetara bideratzeko protokoloak onartzea. Protokolo horiek sei hilabeteko gehieneko epean onartuko dira, erabaki hau onartzen duen erregedekretua argitaratzen denetik zenbatzen hasita.

6. Erregelamenduaren 53. artikuluak aipatzen duen informazio-zentrala mantentzea, zeinak informazioa emango baitu harrerako eta gizarteratzeko gizarte-zerbitzuen multzoari, tipologiari, zerbitzu-emaileari, onuradunei eta kostuei buruz.

D) Estatuaren Administrazio Orokorraren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren elkarrekiko betebeharrak, baterako eginkizunak eta lankidetza-formulak.

1.– Harrera-sistemaren berdintasun- eta batasun-printzipioak Estatuaren lurralde osoan bermatzeko, aurreko apartatuetan ezarritakoa hargatik eragotzi gabe, bi administrazioek baterako eginkizun eta elkarrekiko betebehar hauek bete beharko dituzte:

a) Euskal Autonomia Erkidegoak hilero jakinaraziko du Estatuak harrera-sistema osoaren funtzionamendua ebaluatu ahal izateko beharrezkoa den informazioa, bai eta Erregelamenduak ezartzen dituen informazio- eta komunikazio-betebeharrak betetzeko beharrezkoa den informazioa ere. Informazioaren eduki zehatza eta hori helarazteko modua Koordinazio eta Jarraipen Batzordearen esparruan zehaztuko dira, baina, nolanahi ere, honako hauek jasoko ditu: onuradunen kopurua, egoera soziolaborala eta jasotako laguntzen tipologia eta zenbatekoa.

b) Euskal Autonomia Erkidegoak urteko jarraipen-txostena egingo du, eta han jasoko ditu kudeaketa-alderdien laburpena eta Koordinazio eta Jarraipen Batzordean adosten diren bestelako alderdiak.

c) Estatuko Administrazio Orokorrak eta Euskal Autonomia Erkidegoak lankidetza-hitzarmenak, akordioak edo bestelako lankidetza-tresnak erabili ahal izango dituzte, lankidetza-harremanak areagotzeko, B) letran aipatzen diren pertsonen harreraren kudeaketaren eraginkortasuna hobetzeko eta bitarteko eta zerbitzu publikoen baterako erabilera errazteko, elkarrekiko laguntzaren eta informazio-trukearen bidez.

2.- Lankidetzan jarduteko, Koordinazio eta Jarraipen Batzorde bat sortuko da, paritarioa eta sei kidek osatua: hiru Estatuko Administrazio Orokorrak izendatuko ditu, eta hiru Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak.

Batzorde horrek, erabaki honetan berariaz esleitutakoez gain, honako eginkizun orokor hauek izango ditu:

a) Erabaki honen xede diren eginkizunen eremuan lankidetza eta elkarlana sustatzea.

b) B) letran definitutako pertsonei arreta emateko eginkizunen kudeaketaren jarraipena egitea.

c) Estatuko Administrazio Orokorrak Euskal Autonomia Erkidegoari informazioa ematea prestazioen oinarrizko betekizunei buruz eta autonomia-fasean aplikatu beharreko oinarrizko arau, irizpide, estandar eta adierazleei buruz, horiek onartu baino lehen.

d) Gehikuntza-erabakia gauzatu eta betetzeko arazoei erantzutea, sortzen diren gatazkak eta desadostasunak konponduz.

Koordinazio eta Jarraipen Batzordea gutxienez urtean behin bilduko da, baita bi administrazioetako edozeinek eskatzen duenean ere.

E) Gehitzen diren eginkizunen finantza-kargen balorazioa.

Gehikuntzari lotutako estatu-mailako urteko kostu osoa erantsitako 1. zerrendan jasotzen da.

F) Dokumentazioa eta espedienteak entregatzea.

Eskualdatzen diren eginkizunen dokumentazioa eta espedienteak hiru hilabeteko epean entregatu behar dira, erabaki hau onartzen duen errege-dekretua argitaratzen denetik zenbatzen hasita.

G) Gehikuntza indarrean jartzeko data.

1.– Erabaki honen xede den gehikuntzak 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

2.– Eraginkortasun-datan harrera-sistemaren prestazioak autonomia-fasean jasotzen ari diren eta bizilekua Euskal Autonomia Erkidegoan duten pertsonek harrera-sistemaren prestazioak Estatuko Administrazio Orokorraren aldetik jasotzen jarraituko dute, beren ibilbidea amaitu arte. Harrera-sistemako ibilbidea amaitutakoan, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-laguntzako zerbitzuetara bideratu ahal izango dira.

Eta jasota gera dadin, ziurtagiri hau ematen dugu Madrilen eta Vitoria-Gasteizen, 2024ko martxoaren 11n.

Batzorde Mistoaren idazkariak,
JORGE GARCÍA CARREÑO JAUNA.
UGAITZ ZABALA GÓMEZ JAUNA.

1. ZERRENDA

Estatu-mailako urteko kostu osoa (euroak, 2023)

32. atala: Inklusio, Gizarte Segurantza eta Migrazio Ministerioa

Aurrekontu-aplikazioa	Kapitulua	Zenbatekoa (mila eurotan)
32.03.231H	1	267
32.03.231H	2	38.460
GUZTIRA		38.727